

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fermin Munduate Beitialarringoitia

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1929-2023)*

Aurkibidea



Biografia



Zarimutz auzoko Erromarate baserrian jaio zen. Aita auzoko Uriarte (Uxarte) baserri zaharrekoa zen eta ama Aramaioke Oleta auzokoa. Ezkondu zirenean erosi zuten Erromarate baserria. Zortzi anai-arreba izan ziren, bera bigarrena. Marulandako eskolan hasi zen zortzi urterekin. Hamahirurekin Eskoriatzako eskola nazionaletan ikasi zuen urtebetez. Bizi guztia eman du baserrian, ganaduak eta ardiak zaintzen.

Zintak

ESK-059

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-02-04
- **Iraupena:** 44 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Garai batean baserri guztietan idiak

- **Erref:** ESK-059/001
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserri guztietan idiak zeuden. Herriko batek idi gazteak ekartzen zituen Arabatik eta etxean hazi eta gero zaharrak berriz eramane. Araban baserri askotan bi idi-pare izaten zituzten. Nola ibiltzen ziren garia ereiten emakumezko eta gizonezkoak. Garai hartan esaten zuten neska gazteak baserritik alde egin nahian ibiltzen zirela, lan gogorra zelako. Gaur egun ere ez da erraza baserriko bizimodua, aurrerapenak egon arren.

2. Izan dituen ganadu klaseen inguruko azalpenak

- **Erref:** ESK-059/003

- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:07:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Garai batean esne-behiak izaten zituzten; gero "suizak". Behi onak ziren, esne askokoak. Albaitaria. Gero "pirenaica"k edo larre-behiak ipini zituen, okelatarako. Behiek eta behorrek kaltea eragiten dute zelaian.

3. Romarate edo "Monterena" baserrian jaioa

- **Erref:** ESK-059/006
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak ondoko baserri batetik joan ziren Romarate baserrira bizitzera eta beraiek, zortzi neba-arreba, bertan jaio ziren. Batzuek "Monterena" esaten diote; 'Montera', aurreragoko aitajaunen batengandik datorren gaitzizena omen da. Romarate izena ez daki nondik datorren. Marin auzoan izen bereko beste baserri bat dago.

4. Milizianoak inguruetan azarotik apirilera

- **Erref:** ESK-059/008
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:14:12. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Zortzi urterekin hasi zen eskolan, jada gerra hasita. Milizianoak azarotik apirilera bitartean egon ziren inguruetan. Tolosako bat egoten zen kanpandorrean, zaindari. Egunero joaten zen euren etxera gosaltzera. Atxorrotz inguruan nazionalak egoten ziren eta behetik kanoikadak botatzen zituzten harantz. Bera mutikoa zen artean eta pozik egoten zen balak, kanoikadak edo gerraren ingurukoak ikusten.

5. Bala bat etxera sartu zitzaienekoa

- **Erref:** ESK-059/009
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:17:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gauen argirik ez pizteko agindua zuten gerra sasoian. Gogoan du behin komuneko argia piztu eta bala bat nola sartu zitzaien etxera. Inguru guztia trintxeraz beteta zegoen.

6. Hegazkin alemaniar bat jausten ikusi zuen

- **Erref:** ESK-059/010
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:17:36. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Etxe ondoko bidetik hegazkin alemaniar bat ikusi zuten jausten. Itxuraz, oso behetik ibiltzen zen eta tiroen eraginez jausi zen. Su hartu zuen gero. Hegazkinaren hondakinak ikustera joan zen. Inpresio handiena han ikusi zituen botek egin zioten, barrutik ilea zutelako eta berak halakorik sekula ez zuelako ikusi. Beraiek ganorazko oinetakorik ez zuten izaten.

7. Aita gerra sasoian Zuazon ardiekin

- **Erref:** ESK-059/011
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Aitak ezkondu eta gero ipini zituen ardiak. Ardiekin ibili bai, baina ez zituen bereizten. Beraz, berriz, umetatik izan du ardiekin lotura. Gerra sasoian Arabako Zuazon pasa zuen negua ardiekin aitak eta soldaduek alde egin zutenean itzuli zen, apirilean. Negu ona egin zuen urte hartan. Ardiak gari artean ibiltzen ziren.

8. Milizianoek ihes egin zuten eta etxea erreketez bete zitzaien

- **Erref:** ESK-059/012
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:23:06. **Bukatu:** 00:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian tuneletan ezkutatzen ziren bizilagun guztiak. Egun batean amak igarri zuen mugimendua zegoela eta, tunelean zeudela, milizianoak ikusi zituzten ihesean. Soldadu frankistek tuneletik irten eta etxeratzeko agindu zieten. Iluntzerako etxea erreketez bete zitzaien. Orduko bizipenak. Gauean

etorri eta goizerako alde egin zuten. Alemaniarren hegazkinek ("kazak") inguruko zelaiak zuloz bete zituzten. Horietako bat zen Zarimutzen jausi zena.

9. Zarimutzen jausi zen hegazkin alemaniarren inguruko kontuak

- **Erref:** ESK-059/014
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:29:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Zarimutzen jausi zen hegazkin alemaniarrek tontor bat jo zuen lehenbizi eta su hartu zuen gero. Hondakinak trenbideko "kaltzadoreek" erabiltzen zuten "mesilla"rekin jaso zituzten. Pilotua bertan erreko zela dio. Haren izenean harri bat ipini zuten alemaniarrek. Harria hasieran zutik zegoen, baina gero erori egin zen. Emakume alemaniarrek mutikotan egin zioten inpresioa.

10. Lehenengo Marulandako eskolan eta gero plazan, fraidearekin

- **Erref:** ESK-059/016
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:32:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Zortzi urterekin Marulandako eskolan hasi zen. Hamahiru urtetik hamalaura fraide batekin ibili zen Eskoriatzan. Fraideek gorago zuten komentua, baina fraide horrek plazan ematen zituen eskolak.

11. Milizianoek bildotsak harrapatu zizkietenekoa

- **Erref:** ESK-059/021
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:34:15. **Bukatu:** 00:37:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Milizianoak azarotik apirilera bitartean egon ziren inguruetan. Zerbait jan behar eta baserrietatik abereak lapurtzen zituzten. Ardiak zaintzen zegoela, milizianoek bi bildots harrapatu zizkioten egun banatan. Berak asko maite zituen bildotsak eta orduan bizitakoak kontatzen ditu. Izekok Araba partera pasatu zituen bildotsak, denak eramanez ez zituzten. Nazionalak pasa besterik ez ziren egin, eta haiek ez zieten ezer lapurtu.

12. Ganadua goseak garai batean

- **Erref:** ESK-059/022
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:37:49. **Bukatu:** 00:38:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Garai batean soroak ziren zituzten sail guztiak eta belar oso gutxi egoten zen ganaduarentzat. Lasto "erretxistua" ematen zieten. Arbia nahikoa izaten zuten, baina ganaduak gosea pasatzen zuen. Ez ziren gaur egun bezain ondo zaintzen.

13. Arto-leku ona, gariarentzat txarra; entregatu beharra

- **Erref:** ESK-059/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:38:59. **Bukatu:** 00:40:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Artoarentzat sail onak ziren beraienak, baina gariarentzat ez. Garia erori egiten zen eta alea ere eskasa zuen. Gerora Arabatik ekarri zen gari motzagoa, hobe. Gerraostean garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren eta hamar erreal ordaintzen zituzten. Garia Arabatik ekartzen zuen gero aitak.

14. Aramaiora errotara gauez; inguruko errotak

- **Erref:** ESK-059/024
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:40:29. **Bukatu:** 00:42:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gerraostean maiatzean errotak ixten zituzten. Aramaion errota zabalik zegoen eta Arabatik ekarritako gariarekin edo etxeakoarekin hara joaten ziren gauez, bi asto hartuta. Bera ere joan izan zen 14-15 urterekin. Eskolara joatea baino nahiago. Inguruko errotak.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com